

INGURUMENA

Hiri-hondakinen % 40 baino gehiago hondakin organikoak dira. Interesgarria da nabarmentzea hondakin horiek etxeko eta auzoko konpostajearen bidez kudeatzearen alde onak. Hondakinak bildu behar ez izateak ingurumenerako duen kostua murrizteaz gain, praktika honen sentsibilizazio alderdia nabarmendu behar da. Izan ere, parte hartzen duten familiek hobeki kudeatzen dituzte gainerako hondakinak eta hondakin organikoen ahalmenari garrantzia ematen diote. Ordain moduan, kalitate handiko konposta eskuratzen dute, eta euren baratze edo lorategietan medeagarri organiko gisa erabil dezakete.

Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan argi eta garbi zehaztuta eta bereizita dauden bi eremu daude. Bata landa-eremua da, eta bertan gai organikoak kudeatzeko sistema nagusia etxeko eta auzoko konpostajea da (herritarrek beren kudeaketa egiteko eduki ditzaketen sistemez gain). Bestea hiri-eremua da, eta bertan gai organikoak kudeatzeko sistema nagusia bosgarren edukiontzia da. Gaineratu behar da hiri-eremuk zenbait etxebizitzak ere parte hartzen dutela etxeko eta auzoko konpostajea.

2023an zehar, praktika hau udalerri eta herri gehiagotan hedatzen jarraitu zen, eta horrez gain aurreko urteetako parte-hartzaileei jarraipen teknika egiten jarraitu zen, etxeko konpostajea, auzokoan eta autogestioan. Autogestioan, beren baliabideen bitartez hondakin organikoak kudeatzen dituzten familiak eta/edo taldeak dira, edo konposta pilan eginez, konposta etxean egindako konpost-ontzietan edo etxeko abereen bidez (oilak, txerriak...).

2023an, Erreniega mendiaren hegoaldeko mazelako herrietan egindakoa nabarmendu behar da. Hain zuzen ere, hondakin organikoak biltzeko zeuden 65 edukiontziak eta inauste-hondakinak biltzeko zeuden 10 edukiontziak kendu egin ziren, eta haien ordeaz, etxeko konpostajea bultzatzea (parte hartzen zuten etxebizitzak 186 izatetik 258 izatera igaro ziren) erabaki zen, auzoko konpostajerako 24 gune kokatu ziren eta inauste-hondakinak metatu eta birrintzeko 12 gune antolatu ziren.

Hartara, 2023aren amaieran, Mankomunitatearen esparru osoan, **auzoko konpostajea egiteko 79 gune** daude, eta denen arteko **tratamendu-edukiera osoa 177,5 metro kubokoa da.**

Hondakin berdeen kudeaketari dagokionez, 2023aren amaieran, **hondakin berdeak metatu eta birrintzeko 59 gune** daude, landa-inguruneetan sortu diren inauste-hondakinak kudeatzeko. Hondakin organikoak kudeatzeko modu eraginkorragoa da. Sistema honekin, bio-hondakina aprobetxatu nahi da 0 kilometroko kudeaketa baten bidez, hau da, hondakin hori sortzen den tokian, lekualdaketa gabe, berotegi-efektuko gasen isurpenak nabarmen murriztuz. 2023an, guztira, 1.072 ordu eskaini zaizkio birrintzeari.

Taula hauetan, parte-hartze datuak eta gai organikoak tratatzeko sistema deszentralizatu honen bidez 2023an kudeatu dela kalkulatzeko den gai organikoen kantitateak ageri dira, bai eta 2006an hasi zenetik bide honetatik kudeatu diren hondakin organikoen bilakaera ere.

Kalkulatu da 2023aren amaieran 3.931 tona hondakin organiko kudeatu direla bide honetatik.

Parte-hartzea eta 2023an kudeatutako hondakinen zenbatespena

	Familiak / Etxeak	Pertsonak	Inauste-hondakinak (t)	Gai orgnaikoak (t)	GUZTIRA (t)
ETXEKOAK	3.598	11.873	1.615	973	2.588
AUZOKOAK	740	2.072	66	151	218
AUTOGESTIOA	790	2.481		352	352
HONDAKIN BERDEAK METATU ETA BIRRINTZEKO GUNEAK			673		673
Guztira	5.128	16.426	2.354	1.477	3.831

2006an etxeko konpostajearen jarduera hasi zenetik bide honetatik kudeatutako hondakinen zenbatespenaren bilakaera aintzat hartuta, jarraian erakusten den taula lortzen da:

Konpostaje deszentralizatuaren bidez (etxekoa, auzokoa, autogestioa eta hondakin berdeak metatu eta birrintzeko guneak) kudeatutako hondakinen tonen bilakaera

Hondakin-mota	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Inauste-hondakinak	955	999	1.079	1.103	1.206	1.636	1.734	1.708	1.619	1.624	1.669	1.681
Gai organikoak	471	524	620	657	904	1.176	1.358	1.325	1.423	1.429	1.461	1.477
Inauste-hondakinak haiek metatu eta birrintzeko guneetan											405	673
GUZTIRA	1.426	1.523	1.699	1.760	2.110	2.812	3.092	3.033	3.043	3.053	3.535	3.831

Etxeko eta auzoko konpostajearen jarraipena

Etxeko konpostajean eta autogestioan parte hartzen duten pertsona horiei guztiei jarraipena egiteko eta aholkularitza emateko, 2023an, **501 arreta telefoniko egin dira eta 304 bisita etxebizitzetara**.

Konposta egitek prozesua gainbegiratze aldera, langile teknikoek erregularitasunez egin zituzten bisitak auzoko konpostajerako guneetara.

Konpostajearen alorreko 4 buletin edo aldizkari egin ziren, hondakin organikoak kudeatzeko jardunbide honi zabalkundea emateko.

Etxeko, auzoko eta eskolako konpost onenarendako saria

2023ko martxoan, **Iruñerriko etxeko, auzoko eta eskolako konpost onenarendako sariaren** hirugarren edizioa aurkeztu zen. 38 eskaera jaso ziren, eta haietatik 30 aztertu ziren (20 etxekoak, 5 auzokoak eta beste 5 eskolakoak). Sariak 2023ko irailean banatu ziren, txartel bidez irekitzen diren edukiontziak ongi erabiltzeagatik Arrotxapea auzoari aitortza egiteko antolatu zen jai baten esparruan.

Sariketa honen ondorio moduan, esan daiteke bertara aurkezten diren pertsonak hondakin organikoak birziklatzearekiko konpromiso handia hartuta dutenak direla eta lortutako konpostaren kalitatea oso ona izan zela hiru kategorietan.